



Aurkibidea

**Gardentasunaren
aldeko Euskadiko
Udalen Sarea**

**Sarearen
jardueraren
balantzea**

**Sarearen
hurrengo
jarduerak**

Albisteak

- Gardentasunaren aldeko Euskal Udalen Sarea **2. orr.**

- Sareak garatutako produktu erabilgarriak **3. orr.**
- Sarearen lan-faseak **4. orr.**
- Saioak eta topaguneak **5. orr.**

- Gardentasuneko atariei buruzko jardunaldi monografikoa **6. orr.**
- EUDELeK, IVAPek eta FORU ALDUNDIEK gardentasunari buruz antolatutako ikastaroaren II. Edizioa **6. orr.**

- Gardentasunari buruzko Estatuko Legea indarrean hasia **7. orr.**
- Nazioarte Gardentasunaren arabera 2014ko Ustelkeriari buruzko Hautemate Indizea **7. orr.**

Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sarea

2013ko urtarrilean eratu zenetik, Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sarea udalerriei esperientzia, estrategia, metodologia, tresna eta materialak elkarri trukatzeko espazioa eskaini die, Gardentasuna gure udaletako gobernu eta administrazioetan hobetzeko xedez.

Ildo horretan, Gardentasunari buruzko Euskal Udalen estrategia bateratua diseinatzeko esparrua eskaini nahi da, hurrengo helburuekin:

- Gardentasunari buruzko Euskal Udalen berezko Eredua zehaztea eta ezartzea: faseak, arloak, metodologia, erreferentziak/praktika onak eta materialak gardenagoak izateko.
- Euskal Udalak eta EUDEL Gardentasunaren erreferentzia gisa posizionatzea.
- Gizarteari Euskal Udalek gardenagoak izateko bidean egindako pausuen berri ematea.

Gaur egun, eta azken udalerriak (Andoain, Bermeo, Zalla, Leioa eta Bakio) sartu ondoren, Sarea, gaur egun, herritar-kopuru eta gardentasuneranzko ibilbide desberdinak egin dituzten hiru lurraldeetako Txorierriko mankomunitateak eta 31 Udalek osatzen dute.

Udalen Sare honen xedea ez da "lehiatzea", bere kideen artean ezagutza nahiz esperientzia "partekatzea" eta Euskadiko udalerri guztiei lanaren emaitzen berri ematea.



ARABA: Amurrio, Guardia eta Vitoria-Gasteiz.

BIZKAIA: Abanto-Zierbena, Alonsotegi, Arrigorriaga, Balmaseda, Barakaldo, Bakio, Basauri, Bermeo, Bilbo, Derio, Elorrio, Ermua, Etxebarri, Galdakao, Getxo, Gueñes, Leioa, Mungia, Portugalete, Santurtzi, Ugao-Miraballes, Zalla, Zamudio eta Txorierriko Mankomunitatea.

GIPUZKOA: Andoain, Eibar, Elgoibar, Hondarribia eta Irun.

- 50.000 biztanletik gora
- 10.000-50.000 biztanle
- 10.000 biztanle baino gutxiago

Sareak Euskadiko herritarren %75 baino gehiago ordezkatzan du.

Gardentasun Sareari atxikitzeko:

Sareak oraindik atxiki ez diren udalak gonbidatu nahi ditu Gardentasunaren aldeko konpromisoarekin bat egitera eta etengabeko hobekuntzaren alde beste udal batzuekin lankidetzan aritzera.

Kontaktua: udaltransparencia@eudel.net

Informazio gehiago: www.eudel.net/transparencia/

Sareak 2014an egindako lanaren balantzea

SAREAK GARATUTAKO PRODUKTU ERABILGARRIAK

Etengabeko hobekuntzarako bidean jarraitzeko xedez, Euskal Udalek batera egindako ia bi urteko ibilbide honetan garatu eta partekatu duten lana Gardentasuna ezartzeko hainbat eredu eta tresna erabilgarri prestatzean gauzatu da.

Sareak oraintsu **26** txantilo prestatu ditu guztira, herritarrentzat udal kudeaketaren arloei buruzko informazioa modu antolatu eta ulergarrian sortu eta argitaratzeko asmoz:

- **Ordezkarri politiko eta aldi baterako langileei buruzko informazioa;**
- **Udal langileria eta antolabidea**
- **Informazio ekonomiko-finantzarioa**
- **Udal kontratazioa**
- **Udal laguntzak eta diru-laguntzak**
- **Izenpetutako hitzarmen eta kudeaketa-mandatuak**

Ereduak diren dokumentu hauen bitartez, Udalei laguntzen diegu publizitate aktiboaren lege-baldintza betetzen. Horretarako, jendaurreko informazioa argitaratzeko jardueran lagungarria zaien tresna eraginkorra eskaintzen diegu.



2014ko azaroan argitaratua

‘Udal kudeaketaren arloei buruzko informazioa modu antolatu eta ulergarrian sortu eta argitaratzeko txantiloak’




2013ko martxoan argitaratua

‘Gardentasuneranzko Ibilbide Orria: Estrategia eta tresnak udal gardenagoa eraikitze’: "Udal Gardentasuna abian jartzeko eta kudeatzeko gida". Norbere burua ebaluatzeko ereduak, lehentasunak emateari buruzko irizpideak eta informazio ekonomiko-finantzarioa argitaratzeko gomendioak barne hartzen ditu.



2014ko martxoan argitaratua **2013ko maiatzan argitaratua ‘70 Praktika on udal gardena lortzeko’:** Udalen kasu praktiko eta esperientzien katalogoa, batik bat euskal udaletakoak, **2014ko azaroan eguneratua eta oraintsu izandako 10 esperientzia sartuta.**



2014ko martxoan argitaratua

"Udal Gardentasuna abian jartzeko eta kudeatzeko gida": Udal batek burutu behar dituen jarduerak planifikatzea, Gardentasunerako Estrategia edota Plana zehaztutakoan eta Gardentasuna abian jarri eta egunez egun kudeatzeko Gardentasunari buruzko Lege berrian ezarritako betekizun eta epeetan oinarrituta. **Udal Gardentasuna abian jarri eta kudeatzeko gida dauka, UGIren 2014ko adierazle berriein eguneratuta.**

Sareko kideek lortutako aurrerapen guztien berri eman zaie Euskal Udal guztiei, atxikipen gehiago lortzeko eta Gardentasunaren aldeko Euskal Udalen

Sare sendoa osatzeko asmoz.

SAREKO LANAREN FASEAK

Sareko lan hau hainbat fasetan egituratuta dago, Sareko kideak diren udaletako gardentasunaren alorreko beharrezaneiei lotutako alderdietan aurrera jotzen den heinean antolatuta.

1. FASEA: 2013ko urtarrila – 2013ko iraila

Sareko hasierako fasearen barruan, 2013ko urtarrilean talde pilotua sortu zen Gardentasunaren alorreko 24 Euskal Udal aitzindariak osatuta. Horixe izan zen Euskal Udaletan Gardentasuna gauzatzeko ekimen, material eta tresna erabilgarrien eragilea.

2. FASEA: 2013ko urria – 2014ko ekaina

Sarea sortutakoan eta gardentasunaren alorrean lan egiteko tresna erabilgarriak eskura edukita, 2013ko urrian Sarearen bigarren Fasea lantzen hasi zen, egituraren finkapena ekarri zuena.

Etapa honetan, xedea garapen handiagoa eskatzen duten arloetan etengabeko hobekuntzan aurrera jotzen jarraitzea izan zen. Arlo horiek, besteak beste, hurrengo hauek dira: kudeaketa eta barne-prozedurak (zerbitzuen ebaluazioa, eraginkortasunari buruzko adierazleak, etab.), informazio ekonomiko-finantzaria, edo gardentasunari buruzko herritarrekiko elkarriketa.

3. FASEA: 2014ko uztaila – 2015eko otsaila

Azken hilabeteotan Sareak publizitate aktiboari buruzko lehentasunak bete dituenaz, hemendik aurrera eta fasea amaitu arte materialak sortzea izango da ahaleginen ardatza, betiere guztiontzako irizpideetan oinarrituta. Material horien helburua Udaletan informazio publikoa ikusteko eskubidea betetzen laguntzea da.

Sareko lanaren estrategia bi mailatan garatzen da:

- Gardentasunean pausu gehiago eman dituzten udalek etengabeko hobekuntzarako prozesuan jarraitzen dute, denak batera, elkarlanean.
- Gardentasunean pausu gutxiago eman dituzten udalek gardentasuna ezartzeko urratsak egiten hasi dira hasierako elkarlanaren bidezko laguntzari esker, esate baterako, politikari eta teknikari-taldeak sentsibilizatzeko ekintzak eta prestakuntza nahiz aholkularitzako saioekin, horretarako Sareak berak sortutako materialak erabiltia.



SAIOAK ETA TOPAGUNEAK

Jendaurreko informazioa ikusteko eskubideari buruzko saioa



Urriaren 22an EUDELek antolatutako **lan-saioa** burutu zen. Bertan, arduradun politikoak eta teknikariak diren udaletako ia ehun lagunek gogoeta egin eta eztabaidatu zuten udal gardentasunaren alorrean aurrera jotzeko eta horri eusteko egin beharreko pausuei buruz.

Honako topaketa honetan **Nazioarteko Gardentasuna** erakundeak eta **Informazio Publikoa Ikusteko Eskubideari** buruzko hainbat adituk parte hartu zuten. Bertan,

udalentzat eskubide horrek duen eragina aztertu zuten, bai arlo juridikoan bai gauzatzeari eta erakundeen barruan kudeatzeari dagokionez.

Hala, Gardentasunaren alorreko gaurko gaiei buruz eta udal gobernuetan gai honek daukan eraginaren inguruan informazioa zabaltzen jarraitzen dugu. Horretarako egin dira EUDELen barruan gai bakarreko hainbat jardunaldi, besteak beste, hurrengoak: **Gardentasuna eta Datu Pertsonalen babesa** (2014ko otsaila), **Gardentasuna abian jartzeko udalen esperientziak** (2013ko urria), **Gardentasunaren eta Gobernu Onaren arteko harremana edo Gardentasunari buruzko proiektuaren lehenengo analisisa** (2013ko ekaina).



Informazio gehiago:

*Hitzaldiak: Manuel Villoria, Martin Razquin eta Javier Sierra

“Smart Local Governance: gobernantza onaren erronka udal administrazioan”

2014ko abenduaren 6an eta 7an Bilbon **“Smart Local Governance: gobernantza onaren erronka udal administrazioan”** izenpeko bilera egin zen CGLUren Ezagutzaren Hiri Digitalen Batzordeak antolatuta (Bilboko Udalak koordinatuta) eta hurrengo eragileekin elkarlanean: UN-Habitat; CGLUren Deszentralizazio eta Tokiko Autonomiaren Batzordea; London School of Economics; eta EUDEL.

Ekitaldi honetan, hirien, hirien elkarten, nazioarteko erakundeen eta arlo akademikoaren mundu osoko 79 ordezkariak parte hartu zuten. Bilera hau aparteko aukera izan zen gobernantza hobetzeko bidean, udal eta toki erakundeek aurre egin beharreko erronka nagusiei buruz ezagutza elkar trukatzeko eta eztabaidatzeko: tokiko kudeaketa publiko estrategikoa; Gardentasuna eta Herritarren parte-hartzea; Hiriaren adimena (Big data + open data; eta Administrazio zein Zerbitzu Publikoen modernizazioa). Esparru honetan, EUDELek Gardentasunaren aldeko Euskal Udalen Sarea aurkeztu zuen.



Informazio gehiago:

Web: www.cities-localgovernments.org/committees/cdc

Sarearen hurrengo jarduerak

GARDENTASUN ETA KOMUNIKAZIOARI BURUZKO JARDUNALDI MONOGRAFIKOA

EUDELek “Gardentasuna eta Komunikazioa” hizpide duen gai bakarreko jardunaldia antolatuko du laster. Haren helburua Euskal Udalei gardentasunari buruzko jardueretan ikuspegi komunikatiboagoa ematea da (baita Gardentasunari buruzko Atariak), adituen iritzietatik eta erreferentziazko praktika onetatik abiatuta.

EUDELek, IVAPek ETA FORU ALDUNDIEK GARDENTASUNARI BURUZ ANTOLATUTAKO IKASTAROAREN II. EDIZIOA

Aurreko edizioaren arrakastaren ondoren, EUDELen, HAEE/IVAPen eta Foru Aldundien Zeharreko Prestakuntza Planaren barruan, 2015eko lehenengo lauhilekoan Gardentasunari buruzko prestakuntza-ikastaro espezifikoak egingo dute teknikariei zuzenduta, hurrengo izenburupean: **“GARDENTASUNA: LEGE BETEBEHARRA ETA HERRITARREKIN HARREMANETAN JARTZEKO AUKERA. Nola hasi eta hobetu udal gardentasunari dagokionez”**.



Ikastaro honen xedea udal teknikariak trebatzeko laguntza eskaintzea da, gero Udalean Gardentasuna ezartzeko/hobetzeko proiektu batean parte hartzeko aukera izan dezaten. Helburu bikoitza lortzen lagundu nahi da: alde batetik, lege-araudia betearaztea; eta bestetik, gardentasunean aurrera egiteak legitimitatea eta herritarrekiko harremana hobetzeko dakarren aukeraz baliatzea.

Albisteak

GARDENTASUNARI BURUZKO ESTATUKO LEGEA INDARREAN HASI DA

Abenduaren 10ean indarrean hasi ziren informazioa ikusteari eta gardentasunari dagozkien Gardentasunari buruzko Estatuko Legearen artikulak. Gobernu Zentralaren **Gardentasunari buruzko Ataria** ere plazaratu dute. Bertan kontsultatu daiteke informazioa eta eskabideak egin. Hemendik aurrera, herritarrek eskabideak egin ditzakete Interneten bidez edo Administrazio Zentralak haien esku ipinitakoa kontsultatu. Lehenengo urtean informazio publikoari buruzko eskaera-kopuru handia egotea aurreikusi da, geroago normalizatzen ibiliko den arren.

Autonomia-erkidegoek eta tokiko erakundeek beste urte bat daukate Legean eskatutako informazioa jendaurrean ipintzeko.

Gardentasun eta Gobernu Oneko Kontseiluak legea betetzen dela zainduko du, autonomietan ere horrelakoak eratuko diren arren. Bestetik, **"unitate espezializatuak"** osatu dira hainbat erakundetan, adibidez, ministerioetan, legea betetzen dela bermatzeko, eta **Gardentasunaren Bulegoa** antolatu da, zortzi kiderekin eta Estatuko Lehendakariaren menpe.

Informazio gehiago: <http://transparencia.gob.es/>

NAZIOARTEKO GARDENTASUNAREN USTELKERIARI BURUZKO 2014ko INDIZEA

Nazioarteko Gardentasunak **Ustelkeriari buruzko 2014ko Indizea** argitaratu du. Horren arabera, Espainiako Estatua, Europako Batasuneko 27 estatuen artean ustelkeriari buruzko hautemate handiena dutenen 15. lekuan dago eta 31.ean munduko sailkapenari dagokionez.

Informazio gehiago:

Nazioarteko Gardentasunaren Ustelkeriari buruzko 2014ko Indizea:

<http://www.transparency.org/cpi2014> (INGLES)

http://www.transparencia.org.es/IPC%C2%B4s/IPC_2014/INDICE_IPC_2014.htm (CASTELLANO)

Ustelkeriaren Hautemateari buruzko Indizea: Ustelkeria munduan 2014an:

http://www.transparencia.org.es/IPC%C2%B4s/IPC_2014/INDICE_IPC_2014.htm (CASTELLANO)

Emailen taula:

http://www.transparencia.org.es/IPC%C2%B4s/IPC_2014/Tabla_resultados_IPC_2014.pdf

Gardentasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sarea

www.eudel.net/transparencia

udaltransparencia@eudel.net



Gardentasunaren
Aldeko Euskadiko
Udalen Sarea

Red de Ayuntamientos
Vascos por la
Transparencia